

**Bienvenido a las noticias de Suscriptor**

Has accedido a una noticia de pago y has consumido un clic de tu cuenta personal



PDF-EPUB ↓

SEKZIOAK

ORRIALDEAK

ARTIKULUAK

HEMEROTEKA



HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

PUBLICIDAD



SALIMOS A LA CALLE A REALIZAR UN EXPERIMENTO...



El resultado da que pensar

12/01/2017

EUSKAL HERRIA

Eneko Atxa sukaldariak zabaldu du sagardotegietako txotx denboraldia

Hiru Michelin izar dituen Eneko Atxa sukaldaria izan zuten gonbidatu berezi Astigarragako Zapiain sagardotegian egin zuten ekitaldian. Euskal Sagardoa izendapena estreinatu dute.

GARA | ASTIGARRAGA

IMPRIMIR

ENVIAR



«Gure sagardo berria» esanez eta baso bete sagardo berri bertaratu aurrean altxatu eta edanez iragarri zuen txotx denboraldia Eneko Atxa sukaldari entzutetsuak. Hiru Michelin izarren jabe, bizkaitarrak sagarrondo bat landatu zuen Astigarragako Sagardo Etxearen parean txotxari ekin aurretik.

Berrikuntza nabarmena dago aurten, aurkeztu berri duten Euskal Sagardoaren izendapena baitarama Zapiain sagardotegian Atxak dastatu zuen zukuak. Udaberritik aurrera kontsumitzaileek ohiko saltokietan erosi ahal izango dituzte zigilu hori daramaten 35 sagardotegien botilak.

Jose Angel Goñik Sagardun ekoizleen elkartearen izenean adierazi zuenez, 12,5 milioi litro osatu dituzte aurten, iaz baino milioi erdi gutxiago. Sagardo dotorea, aromatikoa eta edateko erraza da, eta kolorez beste urteetan baino indartsuagoa. Sagarraren uzta zertxobait atzeratu egin dela ere adierazi zuen, oro har, eta ekoizpenaren %40 bertako sagarrarekin egin da.

Maidar Unda, Araban

Gipuzkoan ez ezik, Arabako sagardotegiak ere txotx denboraldirako prest daude. Gaur egingo dute irekiera ekitaldia, Kuartangon. 19.00etan izango da eta Maidar Unda dominadun borrokalaria izango

dute gonbidatu. Giroa alaitzeko, txalaparta, bertsoak, trikiti doinuak eta dantzak izango dira.

Bestalde, Usurbileko Saizar sagardotegiak ere bere ekitaldi propioa egingo du gaur, 20.00etan. Julen Lopetegui futbolari ohi eta entrenatzaileari egokituko zaio «Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!» esatea. Kepa Junkerak egindako "Sagarraren danborrada" kanta aurkeztuko dute musika saio batean, non dantzariak eta bertsolariak ere izango diren.



¿Y SI NO SE CUENTA?
Kontatzen ez dena ez da